

Sarrera

MOTIBAZIOA

Lehenik, aitak kontaturiko gerrako ibilerek eraman naute gai honi lotzera. Espainiako 36ko gerran hiru urte eman zituen gerran, ezkertiar batailoï baten. Lehenbizi, Aretxabaleta, Intxorta, Kanpanzar, Elgeta, Elorrio, Otxandio, Durango, Bizkargi, Bilbo, Legution..., ondotik Asturias eta Santander —garondoa baino beheraxeago tiroa jaso zuen Santander inguruan—, eta, jarraitu zuen penintsularen ekialdean, Aragoi eta Katalunian, eta irabazleengandik ihesi, Port Boutik muga iraganik, Argelers de la Marena-ko (Argelès-sur-Mer frantsesez) hondartzan egon zen denboraldi baten, Frantziako gobernuak errepublikano iheslarientzat prestatutako kontzentrazio-esparruan. Hondartza hartan ez omen zegoen aberats eta pobrerik; kapeladunak eta txapeldunak edo buru-hasak berdintsu, bizitzeko deserosotasun berberak berdindurik, senperrenak ikusten.

Gerraurrean, Irun, Arrasate, Eibar eta Arrasate bezalako herrietara ez ezik, Azkoitia bezalako herri tradizional batera ere —nazionalistak eta karlistak nagusi Udalean, eta apaizen mendean; besteak beste, jesuiten Loiola ber-bertan izanik— heldu zen klase sozialik gabeko gizarte komunistaren utopiaren ametsa, orduko hedabideak oraingoan aldean eskasak izanagatik «Errusian langile-semeak ere unibertsitatara joaten dituk ikastera», esaten zidan aitak, eta «langileek euren etxea izaten ditek». Errusiako iraultzak itzal luzea zuen artean, eta 1934koa oso presente zegoen. Giro hartan abiatu zen miliziano.

Ez zidan inoiz kontatu zenbat hil zituen, ez frontean eta ez atzeguardian. Burkideek salbatu ziotela bizia bai, Santander inguruan, jasotako tiroagatik mugitu ezinda gelditu zenean. Halaber, borrokaldietan bizi izandakoen berri; atsedenegetan egindako parrandenak ere bai. Lagunik onenak eta une gozoenak gerran!, okerrenak ere bai! Atzeguardian, Francoren aldean ibilitako batzuen ibilera lotsagarrien berri ere bai; bat bere lagun-taldekoa. Harrezkero, lagun izateari utzi zioten.

Gerra galdurik, aitarekin batera ibilitako burkide batzuek Ameriketara jo zuten Frantziatik; berak, baina, herrira itzultzea erabaki zuen, adineko ama alargundua jaso behar zuela eta. Jaioterrian ez zioten lanik eman nahi izan, galtzaileekin egin zuelako gerra. Soraluzen eta Eibarren aritu zen lanean gerraondoan, bere moduko beste asko bezala. Halere, beste batzuen aldean, zoria lagun izan zuen!

Amari dagokionez, hamasei urte egiteko zegoen Melillan gerra-egoera deklaratzean. Zazpi senide ziren, bost neska eta bi mutil. Eskerrak bost emakume zirela, bestela ezingo zuten amaren aldeko nire aitona-amonek familia aurrera atera. Bi mutilak gudari ibili ziren, eta gerra-irabazleen aurka egindakoak ordaintzeko eta garbitzeko langile-batailoietan bien artean zazpi urte egin zituzten. Aitona herriko izandun batek enplegatua zuen elektrizitate-lanak egiteko, eta nagusi jeltzaleak Belgikara erbesteratu zirenez, lanik gabe gelditu zen, adinagatik gerratik libratu bazen ere. Besteak beste, kostea-herrietako hoteletan neskame-lanetan ibili zen ama. Gerraondoan ezagutu zuten elkar nire gurasoek. Biek ala biek gaztaro neketsua eta gozakaitza izan zuten, gerra eta gerraondoko miseria tarteko zirela.

Bigarrenik, euskal idazleen gainean egindako ikerlanetan —Pierre Lafitte lapurtarraren eta Etienne Salaberry baxenabartarraren kasuan ere bai hein batean—, 36ko gerraren eta frankismoaren itzal zinez luzea eta baldintzatzailea garbiro sumatu dut. Nemesio Etxanizek, apaiz jeltzale izateagatik, zigorrak jasan zituen —Bergarako artzipresteak beste bi apaizekin batera Burgosera joateko agindua eman zion; bestela, ezingo zuela haien bizia salbatu eta; handik Gasteizera eta beste hainbat jazarpen—, eta zinez deitoratu eta salatu zuen Espainiako Eliza katolikoaren hierarkiak —Gomá kardinala buru, eta gotzainak— Francoren matxinada eta haren sarraskiak zuritzen eta bedeinkatzen izandako jokabidea, eta haren ondorioz, Euskal Herrian hedatzen ari ziren fede-zalantzak eta federik eza. Andima Ibinagabeitiak bere hezurak Caracasen utzi behar izan zituen, izugarri maite izan zuen aberrira ezin itzulirik, Francoren erregimenaren aurka borroka egiteagatik. Azkenik, frankismorik gabe, nekeza da azaltzen Telesforo Monzon, Txillardegia, Eusebio Osa eta Emilio Lopez Adanen bizimodu borrokalaria.

Baina akuilu nagusia lan honi ekiteko Jose Luis Vilallonga Castellvelleko markes zenaren aitortza gordin-lotsagabea izan dut. 16 urte zituela, aita militarrik —zalditeriako koronela—, hala nahi eta erabakita, Euskal Herrian fusilamendupelotoi batean aritu zen hamabost bat egunez, eta gerrak iraun zuen bitartean, erreketean alferrez izan zen, *Oriamendi* tertzioan; Falangearen banderapean ere ibili zen, eta azkenik, armada erregularrarekin.

Aitortu zuen koñakez kargaturiko kafe katilukada hartu, eta untxiak bezala fusilatzen zituztela «gorriak», eta nazionalistak eta are apaiz nazionalistak, eta kontzientzia onarekin egiten zutela gainera —*Fiesta* deritzan nobelan, fusilamendupelotoian buruzagi zuen tenienteak dio gustura egon zitezkeela biktimak hain «garbi» fusilatzen zituztelako, eta ez *gorriek* bezala sekulako mutilazioekin eta—. Andereñoak etortzen omen ziren fusilamenduak ikustera.

Urteak joan eta garai soziopolitikoak aldatu ahala, kontzientzia-bilakaera izan zuen, eta azken urteetan aitortu zuen ez zegoela harro egindakoaz. Erantzukizuna kenduz gero norbanakoari, heriotzaren bulegari bilakatzen da. Beste batzuek lanera bulegora bezala, haiek bestela pentsatzen zuten herritarrak tiroz kalitzera joaten ziren, eta gainera bazuten Elizaren oniritzia eta bedeinkapena lantegi horretarako,

kapilau ugariez gainera.

Ez zen Vilallonga bakarra izan damutzen egindakoaz. Errepublikaren alde errepresioan ibilitako gutxik izan zuten damutzeko aukera ere, gehienak hil zituztelako, baina gerra irabazitakoen aldean, zaila da esatea askotxo izan zirela edo oso gutxi, baina kasu esanguratsu askoak egon ziren, eta lan honen azken atalean jasotzen ditugu, adierazgarri direlakoan.

Akuilu izan dudan Vilallongak lagundu dit halaber, azterlana mugatzen; berez, 1936tik 1939ra eta lehen frankismoan gertaturiko errepresio-ekintzak ikertzea lan mugagabea baita.

Bestalde, esatea badago aspaldiko kontuak direla horiek eta haien arrastorik ez dagoela egun Espainiako politikan? Berrehundik gora militarrek gutuna egin zioten 2020ko urte-amaieran, estatuburu den Felipe VI.a erregeari, non adierazten zioten Espainiako Gobernuan PSOE eta Podemos direla gobernatzen, Espainiaren batasuna arriskuan dagoela. Ildo beretik, Francisco Beca jeneral erretiratuak whatsapppe aditzera eman du militarren talde batean, hogeita sei milioi espainiar putaseme fusilatu beharra legokeela —kalkuluan, PSOE-Podemos eta nazionalistak sartuz, besteak beste—, eta Franco estalirik aipatzeko «errepikaezina» terminoa erabiliz, eta historia errepikatu beharra dagoela. Gertaera horien ondoko Pazko militarrean, armadaburu den erregeak ez die kargu hartu gutungileei ez eta Beca jeneral erretiratuari ere. Halatsu ekin zioten Francok eta Molak-eta 36ko estatu-kolpe militarri, espainiar erdiak fusilatu beharra bazegoen, egingo zela aditzera emanaz, eta izua zabaltzeko deia eginez, hots, ordena sozial tradizionalaren aurkako etsaiak garbitzera xaxatuz jendea.

2020ko abenduan, Auzitegi Gorenak erabaki zuen beste epaiketa bat egin behar zela Bateragune auziagatik. Ezker abertzaleko zortzi militante atxilotu zituzten 2009an, 2011n epaitu eta ezarritako zigorra bete ondotik, Estrasburgoko Auzitegiaren epaitegiak epaia baliogabea zela adierazi zuen 2020ko uztailean. Berrikiago Konstituzio Auzitegiak 2021eko urrian, kautelaz eten zuen Auzitegi Gorenaren 2020ko abenduko erabakia kondenatuek aurkeztutako errekurtoa ebatzi arte. Ildo beretik, Auzitegi Gorenak ezarri zizkien 2017ko urriaren 1eko erreferendumean parte hartzeagatik katalan independentistei ehun urteko espetxe-zigorrak.

Espainian epaileak agintzen aritzea, besteak beste, frankismoak ezarritako justizia-sistema trantsizioan errotik ez aldatu izanaren ondorio da, gerra galdutakoek boterea eskuratzeko garaian izandako ahulezia eta amore-emate interesatuen, eta frankismo politiko-judizial eta are soziologikoaren jarraipenarena, Francok boterearen bridak ondo lotuak utzi baitzituen! Frankismoa ez dago gainditua Espainian.

Jose Vidal-Beneyto zenak idatzia utzi zuen, ezen Franco hil ondoan, ez zela hausturarik gertatu ez eta erreformarik ere, baizik eta frankismoaren autotransformazioa. Halaber, idatzita utzi zuen Espainiako sistema politikoa egun

Europako demokrazia liberalen parekoa dela, baina sistema sozialak frankista izaten jarraitzen duela, orduko klase gidariaren ondokoek jarraitzen dutela boterean, benetako haustura eta are erreformarik ezean¹.

Gonzalo Puente Ojeak, berriz, delako trantsizioaz idatzi zuen ez zela *prozesu eratzaille demokratikorik* egon. Horretarako betekizunak ziren: *behin-behineko gobernu bat* osatzea, diktaduratik demokraziarako iragatea bidera zezan. Bide horretan, monarkia-errepublika hautatzeko plebisituak egon beharra zuen. Sufragio unibertsalez *Gorte Eratzailleak* osatu behar ziren Konstituzioa idazteko, eta argi adierazirik hartarako zela bakarrik, eta askatasun publikoak errespetatuz, murrizketa antidemokratikorik gabe, hedabideetan alderdi guztiei aukera berdinak bermaturik. Ez zen betekizun demokratiko funtsezko horietako bat bera ere bete; funtsean neofrankisten eta PSOEk liderren arteko hautsi-mautsi bat izan zen; diktaduraren aurpegi makurra *adostasun* hitzaren aztikeriaz garbitu nahi izan zen, eta memoria-galtze kolektiboari ekin zitzaion.

Suarezren gobernuak mahukatik ateratako *Ponentzia Konstituzionala* (1977-08-01) heldu zen ezkerreko indarren *kapitulazio* ezin zurituzkoa jada burutua zegoenean. Felipe Gonzalezek eta PSOEk bereziki traizioa egin zieten gainerako indar ezkertiar eta espainiarrei oro har, eta Carrillok ere bai, beste maila batean. Delako ponentzia hartan bi frankista zeuden: Gabriel Cisneros eta Manuel Fraga; hiru monarkiko: Miguel Herrero, Gregorio Peces Barba eta Miguel Roca, katalanista katoliko kontserbadorea; Jose Pedro Pérez Lorca *transfuga*, eta Jordi Solé Tura PSUC eta PCE alderdien liderren morroia (Puente, 2011: 105-108; 121 eta hur.). Zer atara zitekeen guraso haiengandik? Konstituzioa *alimaleko iruzur politikotzat* jotzen zuen, ondorio itzulezinak zituena, eta alderdi politiko ustelei bidea ireki diena demokrazia fartsa bihurtuz. Egunen batean, zioen, berriz ekin beharko zitzaion benetako trantsizioari (Puente, 2011: 259).

Alde gizatiarretik begiraturik, senideen elkarreek-eta —Nafarroako Fusilatuen Senitartekoen Elkarte (2002) eta Euskal Memoria Fundazioa (2009) Euskal Herrian, kasu, eta Espainian, Asociación para la Recuperación de la Memoria Histórica (2002)—, ezen ez Espainiako estatuak —itzela da dagoen aldea Espainiako estatua ETaren biktimekin egiten ari den memoria eta erreparazio-lanaren eta errepublikazaleen biktimekin egin izan duenaren artean—, jarraitzen dute, eta halaber, Aranzadi Zientzia Elkarteak gerra-garaian frontetik kanpo erailak izan zirenen hobien bila, indusketak egiten eta gorpuen hezurak ateratzen, haien pertsonak ahaztura bidegabetik berreskuratze aldera, eta askoz lehenago Espainiako estatuak berak egin behar zuena egun oraindik egiten.

1. Vidal-Beneyto, 2007. Sarrera: 14. or. eta 23-24. or. Eta «España y el posfranquismo. El modelo de una transición modélica» deritzan artikulua: 155-168. or.

IKUSPEGI OROKORRA

Martin Ugaldek dio², ezen 1936koaren aurretik, 120 urtean 60 altxamendu militar gertatu zirela Espainian, bi urtez behin bat. Baina 1936ko uztailekoa ez zen bat gehiago izan. Errepublikaren garaian istilu sozialak egon ziren betiko ordena hierarkiko tradizionala bere horretan atxiki nahi zutenen eta hura irauli nahi zuten indarren artean, baina estatu-kolpe militarra zuritzeko bezainbeste? —lan honetan ez gara Errepublikaren garaiko liskarrez arituko, nahiz garai errepublikanoan gertaturiko liskarretan oinarrituak izan gehienbat fusilagarri ziren edo fusilatu beharreko etsaien lista beltzak—; aitzitik, jeneral afrikanistek jotako kolpe militar kriminalak berak sortu zuen erantzun bezala, kontraerasoaren logika eta indarkeria iraultzailea eta/edo inkontrolatua, indar errepublikano eta ezkertiarren artean; maiz, antzeko mekanismo eta prozedurekin, lehen hilabeteetan, batez ere Madril hartzeko xedez 1936ko azaroan matxinatuek jotako erasoak porrot egin zuen arte.

Hasierako matxinada militarren izaerari dagokionez, oso esanguratsua da Francok uztailearen 18an bertan, artean Kanariar Uharteetako Tenerifen zegoela, hango armadako buru, ez jeneral soil gisa, baizik eta Espainiako indar armatuen buruzagi goren gisa, Tenerife irratitik behin eta berriz hedatu zuen manifestua espainol gutzietan zuzendua. Bi hitzetan, matxinadaren zergatikoa buruz: agintari errepublikanoek berek sustaturik aberriarentzat oso kaltegarria zen anarkia-egoera irauli ahal izateko; eta, zertarakoari dagokionez, eta horixe da esanguratsua eta harrigarria, Espainiako aberrian lehenbiziko aldiz errealitate bihurtzeko harako trilogia frantses famatu hura: senidetasuna, askatasuna eta berdintasuna (Iturralde, 1960: 21-29; Iturralde, 1978: 79-83). Hau da, Frantziako Iraultzaren leloa, beste ordena batean. Aberriak bizi omen zuen anarkiari dagokionez, ez zituen eliza-erreketak aipatu ere egiten. Laster baztertu zuen Francok manifestu hura beste inoiz berriz ez aipatan hartzeko, ez zitziola komeni ikusita, eta laster hasi ziren Franco eta Mola-eta, Jainkoa edo erlijio tradizionala aipatzen, eta Espainiako Eliza katolikoko gotzainen babesa jasotzen.

Matxinada-buruaren manifestu masoi kutsuko harekin abiatu zen hainbeste heriotza, erailketa eta tragedia eta miseria ekarriko zuen errebolta, Francok gerlari onenak eta zintzoenak marokoar moroak zituela, eta Salazarren Portugalen eta italiar faxista eta aleman nazien laguntzan bermaturik. Francok eta Yagüek eta Queipo de Llanok Afrikatik, peninsularen hegotik Madrilera, eta Molak-eta, Nafarroa eta Burgosetik bultzaturik, indar militar-faxistak eta eskuindar zibil boluntarioak etsaia izutzeraz eta sarraskitzeraz, «garbiketa soziala» egitera atera ziren, lehenbailehen botereaz jabetu eta ordena berri faxista-frankista ezartzeko.

Haste-hastetik zuten garbiketa ideologiko sozial-politiko egiteko xedea. Bereziki 36ko bigarren zatian, gerra-bandoaren aitzakiaz egin zituzten matxinatuek hilketa ugari, gizon nahiz emakume eta haurrenak ere, batere epaiketarik gabe eta

2. Ugalde, Martin (1997): *Nueva Síntesis de la Historia del Pueblo Vasco*, II. Tomoa, Ttarttalo, 138. or.

erailak erregistro zibiletan inskribatu barik, hots, agiri-aztarnarik batere utzi gabe; horregatik da hain zaila zehazki jakitea zenbat hilketa izan ziren.

Matxinatuek etsaia erail eta desagerrarazteko plana antolatua zuten —Errepublikaren garaian karguak izan zituztenak, 34ko Iraultzan nabarmendu zirenak, hilketa selektiboak, ez naziak juduak deuseztatzeko egindako planak bezalakoak, baina zerrenda beltz aski luzeak, toki eta garaien arabera, gehiago edo gutxiago exekutatu zituztenak—; errepublikanoek ez. Baina kolpe militarren aurka, kontraerasoaren logikan ere ibili ziren matxinatuak bezalatsu hainbat indar sozialista-komunista eta anarkista, boterearen atomizazioaren gerizpean.

Matxinatuei buru egin zietenek egin zituzten epaiketarik gabeko erailketak, askotan imitazioz, eta kutsu iraultzailez hein baten —«txekak» baziren, noski, atxiloketak eta hilketak egiten zituztenak, eta Bartzelonan 700 Kontrol Patruila eratu ziren, errepresio latza eragin zutenak—, preso ateratzeak fusilatzeke, bereziki 1936ko abuztutik azarora, eta gogorrenak Bartzelonan, Katalunian oro har, Valentzian eta Aragoi ekialdean. Eta azaroan, famatuena hain segur, Madril ondoko Paracuellos del Jarama eta Torrejón de Ardozekoa, non bi mila eta bostehun bat preso fusilatu zituzten bidegabeki, beste espetxe batera eramane behar zituztelako aitzakian, Francoren aldekoak Madril hartzeko zorian zirela, eta errepublikanoek haren defentsan zihardutela.

Madril setiopean zegoen, eta tropa matxinatuak ber-bertan. Badajozen sekulako sarraskiak egitetik zetozen indar afrikanistekin bat egin zezaketen Madrilen preso zeuden militar, aristokrata eta eskuindarrek, bosgarren zutabea osaturik —hala zioen Mola jeneralak, Madril hartzera zihoazen lau zutabeez gain, Madril bazegoela bosgarren zutabea, han ezkutatuak zeuden eskuindar eta faxistek osatua—, eta beldur eta hein baten aitzakia horrekin, matxinoak Madril sartu baino lehen erail zituzten —orduan inork ez zuen uste Madrilek hogeita zortzi hilabetez eutsiko zionik—.

36ko abenduan, espetxeetako zuzendari nagusi FAIko Melchor Rodríguez García izendatu zuten, «aingeru gorria» ezizenez, eta harrezkero ez zen preso-ateratzerik izan epaiketarik gabe erailtzeko, aurreko hilean aginte-postuetan egon zirenak —gehienak komunistak—, leku txarrean utzirik. Komunistek susmo txarra egin zuten, bosgarren zutabekoa ez ote zen, egunero ehun bat preso askatzen baitzituen, eta batzuk gero matxinoen bandora igaro baitziren, kasu, Agustín Muñoz Grandes ofiziala eta irratiko izar Bobby Deglané falangista (Preston, 2011: 516-517 eta 648-649). Bere emazteak ere susmo txarrak egin zituen. Gerra amaturik, bi gerra kontseilu egin zizkieten, eta Muñoz Grandes jeneralaren laguntza erabakigarriari esker libratu zen heriotza-zigorretik. Gisa horretako aingerurik ez zen Francoren bandoan egon, errepresioegileen artean ezberdintasun nabarmenak egon baziren ere.

Kopuruak emanda soilik ez da ezer argitzen eta gainera lan honen xedea ez da kopuru zehatz-zehatzak ematea, baina zertaz ari garen jabetzeko, gerrak iraun zuen 32 hilabeteetan, adituen artean nahiko adostasun dago esateko alde errepublikanoan

frontetik landa 49.000 inguru erail zituztela (Espinosa, 2015: 524), eta horietatik apaizak 4.184 —hamahiru gotzain—, erlijiosoak 2.365 eta mojak 283; guztira, 6.832 (Montero, 1961: 762). Matxinatuen aldean, berriz, 130.000 baino gehiago (Espinosa, 2015: 524) —20.000 inguru gerra amaitu zenetik aurrera (Preston, 2011, 17)—. Horiei erantsi behar zaizkie frontean, gutxienez, hil ziren 300.000 lagun eta erbestera jo beharrean gertatu ziren milioi-erditik gora (Preston, 2011: 17).

Eta datu ikaragarri esanguratsua, gerra-bandoak 1936tik 1948ra arte iraun zuen. Bilakaera egon zen errepresioan; 1936ko bigarren seihilekoan egin zen eraiketa gehien toki gehienetan batere epaiketarik gabe, baina errepresioak jarraitu zuen modalitate sasi-juridikoen itxuran gerra amaitu izanagatik. Garbi utzi behar zen nork irabazi zuen, eta gerra amaitu eta beste hamar urtean, 50.000 preso inguru izan ziren exekutatuak, erbesteratuak ehunka mila, kontzentrazio-zelaietan hamarnaka mila, langile esklaboak ere milaka; bi hitzetan: errepresio alimalekoa gerraondoan, 1950eko urte ingurura arte, eta handik aurrera diktadura gogorra.

Gerrak zirauela ere, eta amaitu orduko, oso gogoratuak izan dira errepublikanoek eragindako biktima «martiriak»; egia, justizia eta erreparazioa egin zaie senitartekoei —han jarraitzen du *Paracuellos*ko hilerri ondoko menditxoan gurutze zuri handiak—, eta Espainiako Elizak lortu du jada ezkertiarrek eraildako mila bat erlijioso martiri deklaraturik kanonizatzea baina ez, haatik, faxistek erail zituzten erlijiosoak, eta erabat ahaztu ditu Estatu espainolak bezala errepublikazaleen eraiketa eta desagertzeak; errepresioan, militar, guardia zibil eta falangista eta erreketekin batean, zutabe garrantzitsua izan baitzen.

Errepublikazaleen biktimak erail, lurperatu eta berrogei urtean isilik eta izu-laborriz maiz egon beharra izateaz gainera, zerbait aipatuz gero, berak ere fusilatuko zituzten beldur, trantsizio-garaian izandako isiltasun-itunaren ondorioz, XXI. mendera arte alde-aldean, ez da inolako justizia eta erreparaziorik egin, eta, gorago esan bezala, estatua ez baizik eta senitartekoen elkarteak ari dira oraindik gorpuak hobi komun ezkututakoetatik ateratzen, eta berandu bada ere, justizia egin nahian.

XEDEAK

Lan honek estatu-kolpearen eta gerraren *kontakizun* faltsu hori gudukatzea du lehen xedea, eta horregatik batez ere errepresioan zentratzen da, errepresio urdinean —nagusi kantitatez eta kalitatez— eta errepresio gorrian; alabaina, errepresioaren itsaso mugagabea lagin hautatu batzuetan baino ez da zentratzen, aski delakoan tragediaren sakontasunaz hein baten ohartzeko, baina irakurlearen eta idazlearen gogoia alferrik sobera atsekabetu gabe³.

Eta batez ere hasierako errepresio fisikoan ardazturik dago, hilketetan, nahiz eta iragaitzaz bezala, errepresio ekonomikoa eta maisu-maistren eta funtzionarioen

3. Askiz da Paul Prestonen *El holocausto español* (2011) irakurtzea barru oso tristearekin gelditzeko.

«garbiketak» ere aipatu, eta ez preso hartutakoen espetxe-baldintzetan, hots, kontzentrazio-zelaietakoa edota langile-batailoien elorrio eta neke itzelezkoetan.

Egia da bortitzenak erailketak izanagatik, sufrimendu aldetik espetxe eta kontzentrazio-zelai eta langile-batailoietan ibilitakoek pairatuak ez zirela gutxiago bortitzak izan. Egia den bezala, askorentzat espetxealdia exekuzioaren atarikoia izan zela. Espainian, esaterako, oihartzun handia lortu zuen kasua *Hamahiru Arrosera* izan zen. 1939ko abuztuaren 5ean, 56 preso exekutatuak izan ziren Madrilan, haien artean hamalau urteko mutiko bat eta 13 emakume, haietako batzuk 21 urte azpikoak, eta geroztik «13 arrosa» izenez ezagutuko ziren, Francoren erregimenaren ankerkeriaren sinbolo bihurtuak. JSUkoak —Gazteria Sozialista Bateratuak— ziren. Hura zuritzeko gezur bat asmatu zuten: Franco hiltzeko konspirazioan partaide zirela. Benetako arrazoa mendekua zen: guardia zibilen komandante Isaac Gabaldón, haren 18 urteko alaba eta auto-gidaria erail izana errepublikanoek 1939ko uztailaren 27an; ordurako preso zeuden gorago aipatuak. Nazioarteko eskandalu handia eragin zuen, eta urte hartako irailaren 9an, 27 preso exekutatu zirenean, hiru emakumeri heriotza-zigorra kommutatu zieten (Preston, 2011: 663).

Gurera etorrita, ezaguna da Saturrarango emakumeen espetxean, 100 emakumetik gora eta 50 bat haur zenbait gaixotasunen ondorioz hil zirela. Eta Iruñeko Ezkabako Gotorlekuko espetxe tristeki famatuan, eta beste hainbatetan. Eta emakumeei eragindako bortxaketa eta umiliazioak: kaskamotz uztea eta errizino-olioa harraraztea, etab.

Eta bigarren xedea, modu xumean gorazarre egitea frontetik kanpo eraildakoei, fusilatu eta haien ahaideei, hainbeste urtean eragin zaien sufrimendu bikoitzagatik.

Memoria liburu bat da, 36ko gerran frontetik kanpo bidegabeki erailen memoriari eskainia. Zifrak ez dira axolazkoenak, axola gehiago dute diskurtso justifikatzaileek, bereziki Elizako prelatuek kolpe militarra gurutzada sakratua bilakatzeko eraikitakoek eta haien zer-nolakoak arakatzek. Eta ideia esan dezagun era batera edo bestera liberalak gudukatzen jarritako ahalegin tematsua, Errepublikaren ondare espirituala txikitzeko, zuztarretik ebakitzeko, mota askotako errepresio gupidagabeaz baliatuz.

Errepublikaren balioak suntsiturik, Espainia berria Espainia zahar inperialaren balioetan oinarritu nahi izan zuten, eta lantegi horretan, Eliza katoliko espainol aberkoari leku hauta eman zioten, eta estatuko agintari militarren eta agintari erlijiosoen artean ezkontza estua gertatu zen, diskurtsoak trukatzearaino iraultza eskuindarraren lehen urteetan, militarrek diskurtso erlijiosoa landuz, eta erlijiosoen militarra. Done Jakue moro-hiltzailea eta Pilareko Ama Birjina, eta beste hainbat ama birjina: Covadonga, Sevilla eta abar; beste hainbat santu eta santa espainol, eta Euskal Herrian, Arantzazu, Begoña, Estibalitz, Aralarko San Migel, sinbolo erlijioso-politikoak ikaragarri indartu ziren, eta nazionalkatolizismoa hedatu lehen urteetan, errepresioagatik apenas erresistentziarik gabe. Horri ere erreparatzen diogu lan honetan.

Ez da kolpe militar eta gerra zibilari buruz adituak direnentzat idatzia, adituengandik informazioa bildu, hautatu —hamabost bat mila liburu omen daude gerra zibilaz idatziak—, eta neure ikuspegi pertsonaletik moldatua denez gero, baizik eta gai horretaz ideia orokorrak izaki gehiago jakin nahi lukeenarentzat moldatua.

Hego Euskal Herria bitan banatua gelditu zen berehala. Nafarroan eta Araban —Aiaraldea salbu—, militar matxinatuek erreketen eta falangisten lankidetzarekin boterea lortu zuten kasik batere erresistentziarik gabe, eta terrore urdinari ekin zioten.

Gipuzkoan, kolpe militarri porrot eginarazi zioten ezkerreko indar milizianoek, batez ere Loiolako kuarteletan armak lortu zituzten anarkistek, eta pare bat hilabetez, Errepublikaren erakundeek porrot egitean, iraultza kutsuko egoera bat bizi izan zen, eta terrore gorriak bere lekua izan zuen oso epealdi laburrean. Matxinatuen esku erortzean, errepresio frankista are gogorragoa izan zen.

Bizkaian, berriz, ez zen kolpe militarrik gertatu, erreboltariak ez zuten lortu Errepublikaren arkitektura instituzionala hondoratzea, eta Errepublikaren mendean iraun zuen hamaika hilabetez, Eusko Jaurlaritza urrian sortzez geroztik bereziki, beste leku batzuetakoen aldean errepresioa leuna izan zen, baina gertatu ziren kartzelakeraso eta erailketak etsaien bonbardaketen ondotik gehienbat, eta, matxinatuen esku jaustean, jakina, terrore urdin frankista jazo zen, luzeagoa eta iraunkorragoa, 1937ko urtearen amaieratik aurrera.

Nafarroak leku berezia du errepresio urdinari dagokionez. Errepublikaren aurkako estatu-kolpea hasieratik garaile gertatu zen Nafarroa Garaian, eta Burgosekin batean, Mola jeneralaren agindupeko militarrentzat eta Eliza katolikoaren hierarkiarentzat ere leku garrantzitsua izan zen, Iruñeko komentu batean eman baitzuen gerragaraia Espainiako Elizaren buruzagi Isidro Gomá primatuak eta han idatzi baitzuten Nafarroako gotzain Martzelino Olaetxeak eta Gasteizko gotzain Mateo Muxikak 1936ko abuztuaren 6an sinatutako pastorala, eta Espainiako gotzainek mundukoei 1937ko uztailen Francoren alde idatzi eta lau haizeetara zabaldutako pastorala.

Lau lurraldeetan, egoera ezberdina eta errepresioa ere bai, baina Euskal Herrian gertatua aditzeko Espainiako jakin beharra dagoelako uste osoan, kolpe militarra, eta kontraerasoa eta errepresio bortitza ditu aztergai ikerlan honek. Garai anker batean ardazturiko ikerlana, gizakiak zirkunstantzia batzuetan —bereziki agintari zibil-militar eta erlijiosoek xaxaturik eta/edo baimendurik bada—, gizakiari zenbat min eta krudelkeria egiteko gai den erakusteko aparta! Eta horren salaketa, eta biktimei gorazarrea.

Laugarren parteak atzeguardiako hilketen aurka agertu ziren errepublikazaleak ezagutaraztea eta gorestea du xede, eta halaber, tragedia bortitzaren beste ertz batzuk erakustea. Hiru sinestun kristau eta hiru gizadian sinestun bildu ditut; esanguratsuki hirurak errepublikazaleak!